

...eta

Kitto!

905 zkia.
2014-X-24



Nazioarteko ahotsen **MUSIKALDIA**



KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

ZERBITZUA **GESTIOA** **ADMINISTRAZIOA**

30 urteko esperientziak
ematen duen
konfiantza



www.euki.com

Tel: 943 200 358



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABERO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza. New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Ebolaren krisian Kuba izan da laguntza bidaltzen lehena. Krisiaren erdian NBEetako idazkari nagusiak bost herrialdetara deitu zuen laguntza eske: munduko lau herrialde nagusietara eta Kubara. Azken honek 500 aditu bidaltzeko hitza eman du eta 200 dagoeneko han daude. AEBk, ostera, 3.000 marine bidali ditu Beharbada birusa tiroka hiltzeko asmoa dute"

(JOSE MANZANEDA,
EUSKADI-CUBAKO KIDEA)

"Hemendik pasatzen den usoaren portaera Landetako artasoroek aldatu dute. Eguraldi txarrik sumatzen ez badute, hor gelditzen dira artalea jan eta jan, denbora luzez. Berriz ere hegoaldera hegatan hasten direnean, hemendik goitik pasatzen dira, igual Soriaraino iritsiz eta, han daudela, buelta ematen dute eta atzera gure gainetik pasatzen dira, arratsaldean Landetara itzultzeko"

(MIKEL OLANO,
BASOZAINA)

"Gaztelera ama hizkuntza duten ikasleen kasuan zailagoa da euskara ikasi nahi izatea, ez dutelako euskara ikasteko beharrik sentitzen. Aldiz, euskara edo gaztelera ezagutzen ez dutenek gogo handiarekin hartzen dute euskara ikasteko erronka hori. Ikasle etorkina, gaztelera ezagutzen ez badu, euskara erabiltzen saiatuko da bertakoekin. Gaztelera aritzen diren etorkinek, ordea, ez dute pauso hori ematen, eta bertakoek gaztelera egitera behartzen dute eurekin"

(NEREA EGIBAR,
GAZTETXO ETORKINEN EUSKARA IRAKASLEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

KASKAJO.- Tentela, kokoloa, buruz motela edo zentzugabea. "Bere dotoretasun guztiagaz, kaskaju haundi bat, badakizu zein".

KASKAJUEN EGUNA.- Barixakua. "Eguena izaten zan kaballero txikixen eguna eta barixakua kaskajuen eguna".

eskutitzak

ESKERRAK EIBARKO ARTILE DENDAKOARI

Astero Arrasateko San Juan de Dios ospitale geriatrikora joaten garen bi boluntario gara. Han bizi diren emakume talde batekin (oraingoz ez delako gizonik animatu) elkartzen gara, eta puntua egiten dugu. Euren dako relax-une bat dela diote eta guretzako motibazio iturria.

Hasieran beldur apur batekin hasi baginen ere, emakume horiek oso erraz jarri digute bidea. Puntada bat eta bestearen tartean, hari-zuntzen artean eta kafe egin berriari trago batzuk emanez, konfiantzan eta entzuketan oinarritutako lagun-giro atsegina sortzen

ari gara, eta askatasunez hitz egiten dugu gure arduraz, amodioez, beldurrez, gure ametssez...

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu astero hartzen gaituzten emakumei eta bereziki eskerrak Isabeli, Eibarko Artile dendakoari, orratzak eta artileak doan emanda aurrera jarraitzeko animoak ematen dizkigulako. Eta baita eskerrak Juanitari eta beste zenbait laguni ere, ikusten ez den euren lanari esker, gizarte onbera eta justuagoa lortzeko borondatezko lan hauek egiten jarraitu ahal dugulako.


ARACELI LORENZO ETA ANA PASCUAL (ANTZUOLA)

II. ASIER CUEVAS HERRI-LASTERKETA ERDI ALDEAN

II. Asier Cuevas herri-lasterketa dela-eta, zapatu arratsaldeko 18.00etatik 18.40etara bitartean, trafiko gorabeherak izan daitezke Eibarko erdigunean. Lasterketa Toribio Etxebarriatik hasi, Ego Gain kaletik igo eta Karmen, Barrena eta Barakaldo lotzen diren bidegurutzeraino doa. Beraz, 18.00etatik 18.45etara bitar-

tean, Eibar erdira datorrena Jardinetako sarreratik edo Sallabenteko biribilgunetik sartzea gomendatzen dugu. Eta, irteteko, Sallabenteko biribilgunetik edo auzoetatik, Eibar erdia saihestuz. Arazoak ulertuko dituzuelakoan, eskerrik asko.

KLUB DEPORTIBO ATLETISMO TALDEA



ORDU ALDAKETA

ASTEBURUKO zapatutik domekarako (urriak 26) goizaldeko 03.00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02.00etara. Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburu horretako domekak. Neguko ordutegi honek martxoaren 29ra arte iraungo du; egun horretan udakoa jarriko da berriro indarrean.



Euskara Elkartea

ARGITARRAZILEA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi.
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

San Andresekuekin ados ipintzekotan

San Andres pasialekuko 4. eta 5. zenbakixen eraisketa behin eta berriz atzeratzen ari dala eta, oin dala egun batzuk Eibarko EAJ-PNVk gogor kritikau eban udalak gaixarekin dakan jokabidia eta, moziñua erregistrata, arazua lehenbailehen konpontzeko eskatu eben jeltzaliak. Esandakuen harira prentsaurrekua emon eban alkatiak eguzatenian eta, azaldu ebanez, "atzerapena lau etxetan bizi diran famelixak bertatik urtetzeko dittuen arazuak eragin dabe, nora juan ez dake eta. Bizilagunak eskatuta, udala arazua konpontzen ahalegindu da, beti be famelixak indarrez eteratzia saihesteko ur-

tenbide billa. Martitzenian pegora bixetako bizilagunekin batu nintzan, 40 bat lagun alkartu giñan eta badirudi lau famelixiak onartzeko moduko tratua eskintzia lortu dogula: hiru famelixari bost urterako alokairu sozialeko etxiak topau detsaguz eta laugarrenaren kasuan, barriz, promotorarekin ados ipintzia lortu ez dabenez, bixen bittartian eta prozesua desblokeatzeko, udalak berak etxia eroatea erabagi dau. Astebete emon jakue erantzuteko eta, etxetik urtetzia onartzen daben momentuan, eraisketak egitteko arduria atzera be bizilagunak eukiko dabe".



Alkatiak San Andreseko bizilaguneri egoeriaren barri emoten. SILBIA HERNANDEZ



Amaia Telleriari sarixa

Bere izena dakan automozioñi taldiaren sortzaillia dan Amaia Telleriak 2013ko Enpresari Onenari sarixa jaso eban Euskal Enpresa fundaziñuak antolatutako XXIII. Euskal Enpresaren Gaban. Guggenheim Museuak hartu eban ekitaldixan, Telleriarekin batera Irizar, AJL Ophthalmic eta Alstom be sarittu zittuen.



EibarOrg-ekuak 10 urtiak ospatzen

EibarOrg-eko blogarixak blog-komunitadiak 10 urte bete dittuela ospatu eben aurreko zapatuan, Eibarko Museuan egiñ eben eki-

taldixarekin hasi eta, Untzagan piskolabisa hartu eta gero, Azittain erretegixan danak alkarrekin bazkaltzen.



Errigoraren udazkeneko kanpaiña

Datorren astelehenian hasiko da Errigoraren udazkeneko kanpaiña eta, iazko moduan, Eibarren Nafarroako Erriberako produktuak erosteko aukeria eukiko dogu atzera be. 50 eurotan, argazkixan ikusten dozuen moduko otarra erosteko aukeria eskintzen dabe, beti be aurretik

eskeria eginda. Horretarako AEK euskaltegira, Juan Antonio Mogel ikastolara, LAB sindikatura eta Kultura jo leike eta, bestela, eibar@errigora.org helbidera idatzi leike. Errigoraren kanpaiñren gaiñian gehixago jakittekko www.errigora.eus webgunian sartu.



Dendarixen urriko 1.000 euruak banatuta

Astelehenian egin eban Eibarko Dendarien Elkarteak bezeruen artian 1.000 euroko txekia banatzeko hilleroko zozketia: urriko sariduna erretratuan ikusten dozuen M^a Asun Rodriguez Alzola izan da eta txekia Kofiña dendan jaso eban.

Gaztetxiaren 3. urteurren jaixa

Bixar ospatuko dabe Iparragirre kaliaz gaztetxia zabaldu ebenetik hiru urte pasau dirala. Horretarako, goizetik hasiko dan programia preparau dabe: 10.30xetan asanblada eginda hasiko dabe eguna eta 14.30xetan, barriz, alkarrekin bazkaldu dabe. Bazkalostia animatzen diranak Pictionary jokurekin jarduteko aukeria eukiko dabe eta 18.30xetatik aurrera Miren Gisasola Urzelai eta beste baztuzen eskutik erromerixia egingo da.



50 urtiak ospatzen

1964xan jaixotako 190 andra-gizon alkartu ziran aurreko zapatuan, aurten 50 urte bete edo beteko dittuela alkarrekin ospatzeko. Estaziñuan taldiaren erretratua egiñ eta ge-

ro, dulzaineruekin kalejiran Untzaga aldera igo ziran, txikiteuan ibilli eta gero alkarrekin bazkaltzeko eta, jakin dogunez, euretako askok gaberañño segidu eben parrandan.



autuan

1969-KO SALLETARRAK

La Salleko 1969ko ikasliak jaixa preparau dabe, 80. hamarkadan lhasiko eskolan ikasten egon ziranendako: 12.30xak 13.00ak aldera Guridin batu eta jarraixan kalejiran ibilliko dira. 14.00xetan Untzagan taldiak erretratua egin eta 15.00etan Iruki sagardotegixan bazkalduko dabe. 19.30xetan atzera be kalejiran ibilli eta gero, 20.30xetan "Musika Revival 80/90's" antolatu dabe Tas Tas-en. Izena emoteko azken eguna martitzena izango da (50 euro, La Caixako ES22 2100 1883 9502 0017 6791 kontuan. Informaziño gehixago www.lasalleibar69.blogspot.com helbidian.

1944-XAN JAIXOTAKUAK

Azaruaren 8xan batuko dira urte horretan jaixotakuak: 13.00ian Untzagako Arkupe tabernan alkartu eta jaixan parte hartuko dabeneri zapixak banatuko detsez. 14.00xetan taldiaren erretratua egin eta 15.00etan Unzaga Plaza hotelian bazkalduko dabe. Juan nahi dabena 60 euro sartu biharko dittu Laboral Kutxako 3035 0078 81 0781052201 kontu zenbakixan.



Funeraria Ehorztetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Labores de
Ainhea



Gurutze-puntuan eta patchwork-en
espezializatua.

Juan Gisasola, 6 690261090
PATCHILDOR-ekin elkartutako **DENDA BERRIA**



publiresa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net

asteko 600 datua

bisita baiño gehiago jaso dittu Museuak, sortu zala 100 urte bete dirala ospatzeko urrixaren 8xan arma erakusketa barrixa zabaldu ebanetik. Sorrerako 1914ko kataloguan 133 arma motz, 79 arma luze, 6 arma zuri eta beste 3 pieza solte agertzen dira.

San Andres eskolakuak Arraten

Egurdixa lagun, aurreko domekan primeran pasau eben eguna Arraten San Andres herri ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasuak, eskoliaren sorreraren 50. urteurrenaren harira antolatutako jaialdixan. Arratera igotzeko hiru talde osatu zittuen, ikastetxetik abiatuta bakotxa bide batetik igotzeko (Orbeko pistatik, amabirjiñaren pausetatik eta Santa Kurutz/Kalamuatik). Arraten batuta, eguardixan edarto ibilli ziran ume eta nagusixak zelaixan antolatutako jolasetan parte hartzen eta Musika Eskolako triki-



Ikasle, guraso eta irakasliak hartu zeben parte jolasetan. LEIRE ITURBE

tilarixen musikarekin zein eskolak eskindutako hamarretakuarekin gozaten.

Pobrezia Zero La Sallen



Pobrezia Zero Egunaren harira, La Salle Azitain ikastetxiak sensibili-zaziño ekitaldixa egiñ eban aurreko barixakuan Untzagan. 1. eta 2. DBHko ikasliekin batera, PROYDE – PROEGA ikastetxeko GKEko ki-diak eta Tandanacui gazte taldekuak hartu eben parte. Gaztiak plaza inguruan zebillen jendiari munduko pobreziarekin zelan amaittu leikian galdetzen ibilli ziran eta, jarraixan, jasotako erantzunak muraletan pegau zittuen jende guztiak irakortzeko.



Selfie irabazliak sarixa jaso dau

#SagardoEgunaren harira antolatu genduan selfie lehiaketia Jaione Berraondok irabazi ebala emon genduan aditzera eta aurreko asteko eguenian etorri ziran sari billa ...eta kitto!-ra Mainer Hernandez, Iraia Lizundia eta Eneritz Sodupe, selfixan berarekin batera agertzen diran lagunetako hiru, Jaione bera ezin zalako etorri. Argazkixan ikusten dozuen moduan, pozarren hartu zittuen Gorenak alkatetako 13 sagardo botillak eta seguru laguneren artian edarto edango dittuela. Zorionak eta on egin!

Pagatzako andrak Logroñon

Argazkixan ikusten ditzuzuenak oin dala egun batzuk Logroñora exkursi-ña egiñ eben, eguna bertan emon eta hiriko alde zaharra bisitatzen: harrisixak, parlamentua, Santiago elixia, San Bartolome, Oca plazia eta beste tokixak ikusten ederto ibilli ziran.





Aurreko astean Donostian egindakoari jarraituta, Atzegi adimen urritasuna dutenen elkarteko ordezkariak astelehenean Eibarren aurkeztu zuten aurtengo sentsibilizazio kanpaina: #ElkarriOn goiburuarrekin, "adimen urritasuna dutenekin sortzen diren elkarrenganako onurak ezagutzera emateko asmoa" adierazi zuten agerraldian. Carmen Simon Atzegiko Debarreneko ordezkariak elkarteko beste kide batzuekin, alkatearekin eta adimen urritasuna duten umeekin beharrean ibilitako irakasleekin batera azaldu zituen kanpainaren nondik norakoak.

CARMEN SIMON, Atzegiko Debarreneko ordezkaria:

"Ekarpenik garrantzitsuenak sentimendu mailakoak dira"

- Zein da #ElkarriOn kanpainarekin zabaldu nahi duzuen mezua?

Beste batzuetan guk euren alde zer egin dezakegun, horretan ipini da indarra, baina oraingoan horri buelta eman eta adimen urritasuna dutenek arlo desberdinetan aportatzen dutena azpimarratu nahi izan dugu. Izan ere, aportatzeko asko dutela eta, gainera, balore positibo ugari sortzen dituztela erakutsi nahi dugu. Horretarako, elkarren arteko harremanen aberastasuna erakusten duten kartel bi egin dira, aurtengo kanpainen protagonista diren Maialen eta Gorkarekin. Kasu bien esperientziak familiakoen eta lagunen ahotan kontatzen dituzten bideo labur bi ere sareratu ditugu. Horiek eta kanpainarekin lotutako guztiak www.atzegi.org/elkarrion webgunean daude.

- Aurtengo kanpainako berrietasunen artean, jendea "selfie" edo argazkiak bidaltzera animatu nahi duzue, nola egin dezakete?

Kanpainaren aitzakiarekin adimen urritasuna dutenekin batera egindako arkazkiak jasotzeko nahi ditugu, horiei begirata euren gaitasunak jasotzeko balore positiboak ikusteko aukera izateko. Argazkiak Twitter (@atzegi), Facebook ([facebook.com/pages/ATZEGI](https://www.facebook.com/pages/ATZEGI))

GI) edo Whatsapp (609703706) bidez bidali daitezke eta dagoeneko hasi gara jendeak bidalitakoak jasotzen eta interneten, kanpainaren webgunean ikusgai ipintzen.

- Kanpainaren ardatza adimen urritasuna dutenek aportatzen dutena da. Zuen esperientziatik ikusita, zer aportatzen digute?

Uste dugu aportazio edo ekarpen garrantzitsuenak sentimenduei lotutakoak direla: bizi-poza, besteenganako elkartasuna, edozein zailtasun gainditzeko aurrera egiteko kementa... horiek eta askoz gehiago ingurukoek transmititzen digute egunero. Ama naizen aldetik eta adibide bat ipintzeagatik, alabaren ekimenez orain lehenagotik Whatsapp taldea daukagu, bere ideia izan zen eta berak sortu zuen. Bai-

na zalantza barik, ekarpenik handiena sentimendu mailakoa da, besteok ez daukagun sentsibilitate berezi bat daukate eta inguruko norbaitek arazo txikiren bat izanez gero, beste inor baino lehen konturatu eta laguntzen dute. Eta izaten duten bizi-poza oso kutsakorra da, beti lortzen dute lagun eta familiakoak alaitzea.

- Urteroko kanpainarekin batera, zeintzuk dira elkartearen jarduerak nagusiak?

Aurkezpene egiteko aukeratu dugun Txolarteren lokal honetan astebarruan eta zapatu arratsaldetan aisialdi zein euren premiekin lotutako jarduerak egiten dira, bolondresen laguntzarekin. Orain eguaztenetan dantza klaseak ematen ari dira, baina Juan San Martin liburutegiak "Ira-



Urteroko sentsibilizazio kanpainaren aurkezpene astelehenean egin zen.

kurketa Erraza" kanpaina ipini du martxan orain dela gutxi eta horren inguruan daukaten materialarekin hemen zer egin daitekeen aztertzen gabilta. Urtarrilean bolondresei eskerrak emateko afaria eta maiztza/ekainean erabiltzaileek eta familiekin elkarrekin bazkaltzeko jaia egiten da urtero. Aurten, gainera, Txolarre Eguna Eibarren egingo da, maiztaren 9an, eta Debarreneko 500 bat lagun elkartzeara espero dugu.

Hamen dittugu ate joka beste behin Tolosako abesbatza lehiaketiak gure artian lagatzen dittuan aztarnaren zantzuak. Lehiaketa garrantzitsu horrek 46. ediziñua betetzen dau aurten eta gure Musikaldia egitten hasi zala be badira 22 urte. Izan dira ediziñuak guregana kanpotik etorritako koro gehixago izan dabena, baiña oinguan Tolosan izango diran hamalautik bi izango dittugu hamen, Singapurretik eta Hungriatik etorritak. Jakiña, herriko Andres Egiguren orkestiak eta Usartza Txistulari Bandak be euren tartia izango dabe.



Hungriako Gemma kamara abesbatza.

Aurtengo Musikaldiak bost kontzertu eskinduko ditu

Aurtengo ediziñuari kanpotarrak emongo detse hasieria, datorren asteko **astelehenian eta martitzean** izango diran kontzertuekin. Bixak ordu berian eta toki berian izango dira: Coliseoan, arratsaldeko 20.30xetatik gabeko

22.00ak arte gitxi gorabehera. Hungriako eta Singapurreko abesbatzen lana ikusteko bost euro bakarrik ordaindu biharko da. Goi maillako ikuskizuna ezin merkiago.

Coral Zoltán Kodály Eskola Hungariarrekiko ikasle talde batek sortu zeban **Gemma**

Vocal Ensemble taldea 1996-xan eta oin 14 abeslari, musikari kualifikatu, ekonomilari, hezkuntza bereziko irakasle eta literatuak osatzen dabe abesbatza. Errenazimenduko musikatik hasi, moteteak, erostak eta Bachen kantatetatik egungo musikagille hungariarretarainoko tartia hartzen dau taldiaren errepertoriuak. Ikusliari "bakia, poza eta maitasuna hurreratzia" da abesbatzaren helburua eta balore horren alde dihardue.

SYC Ensemble, bestalde, lehen Singapurreko Gaztien Abesbatza moduan ezagutzen zana, 1964an sortu eta ordutik mundu guztian sarritua izan dan afizionauen abesbatza da. Eskolako abesbatza moduan hasi zan taldea, Hezkuntza Musikaleko Ministerixuaren Saillaren barruan. Eta Singapurren bakarrik ez; Melbourne, Manila, Honolulu, Vancouver eta Espainian be jardun izan dau.

Herriko musikuak be bai

Gure herriko **Andres Egiguren Orkestiarekin barixakuan** izango dogu hitzordua, azken urtiotan lez. Aurrekuen ordutegi berarekin eta 8 euro ordainduta, emonaldiki bikaiña eskinduko dau orkestiak, oinguan **Ainhoa Franco** sopranauekin alkarlanian. Pedro Palacin eibartarrak sortutako orkestan euren formaziñuaren aurrera egitteko aukeria eskintzen jakue musika munduan sakondu nahi daben



Ainhoa Francok Andres Egigurenekin abestuko dau.



M^a ANGELES ARRIETA MURGOITIO
(2013-X-25)

Urtebete bada ere gure aldetik joan zarela...
**EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO IZAN
DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA.**

Jose Miguel eta Jaione Gorospe, zure senarra eta zure alaba

EGITARAUA

urriak 27 20.30 Gemma
 urriak 28 20.30 SYC
 urriak 31 20.30 Andres Egiguren
 & Ainhoa Franco
 azaroak 1 20.00 Aitor Olea
 azaroak 2 12.30 Usartza Banda

(GUZTIAK COLISEOAN, OLEARENA KENDUTA,
 SAN ANDRES PARROKIXAN)

gaztieri; ikasten diharduena praktikan ipintzeko aukera aproposa da, beraz, Andres Egigurenena.

Ainhoa Franco urretxuara gaur egun Donostian dago finkatuta eta, biboliñaren goi titulua eskuratu ondoren, hogeit urte emon ditu Donostiako Orfeoiairen soprano soken artian. Kantu ikasketak Masako Ishii, Almudena Ortega eta Josu Okiñena irakasleekin egin ditu eta oin Alfonso Leoz maisuarekin dihardu.

Mozart-en "Figaroren ez-teiak", Pucciniren "La Bohème", Bizet-en "Carmen", Verdiren "La traviata", Rossiniren "Semiramide" eta Beethoven-en 4. mugimenduko zazpigarren sinfonia izango dira eskinduko dabena egitarauaren osagaia, beste batzuren artian.

Domekan, azaruaren 2xan, bestalde, **Usartza Txistulari Bandak** eskinduko dau kamara-kontzertua. Hori bai, eguerdiko 12.30xetan hasita eta gitxi gorabehera 14.00xak arte iraungo dabena, aurrekuak lez, Coliseoan.

Olea Domusantu egunian

Eibarko musikagillien artian, baiña, organo kontzertua be izango da: **Aitor Oleak**



Aitor Oleak San Andres parrokixan joko dau azaruaren 1ian.

eskinduko dabena, 20.00etatik 21.00etara, beste eszenarixoko batian, San Andres parrokixan, hain zuzen be.

Durangoan jaixotako organo-jotzaillik 1997xan amaittu zittuan organo ikasketak, Baionako "CNR de Musique" "Medaille d'Or" izeneko sarixa eta sari berezixa eskuratuta. Bi urte lehenago pianoko goi maillako titulua lortu zeban Bilboko Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorixuan. "Organos de Vasconia", "XXth Century Basque Organ Music" eta "De musica popular vasca" CD-ak argitaratu ditu. Aurrekuaz gain, hogeit urtetan eta 2008ra arte, Lekeitixoko basilikak dakan organuaren organo-jolia izan da eta Lea-Artibaiko Nariñoarteko Organo Jaialdixa be berak sortu zeban. Gaur egun Bergarako Pedro Deunaren elizak dakan Stolz Freres organuaren organujole titularra da eta baita irakaslia bertako Boni Laskurain musika eskolan.

Singapurreko SYC kamara abesbatza.



Euskara Elkarte
Gabonetako OTARRA
 Prezioa: 1€
 Zbk:

Gabonetako OTARRA

2.000 €ko
balioa duen Otarra

Prezioa: 1€
 Zbk:

Zozketa 2014ko
 abenduaren 17an
 egingo da



Euskara Elkarte
Irabazleak 15 egunetan agertzen ez bada,
 erdiakari emango zaitu otarra.

Gabonetako OTARRA

GAUR (19.00-21.00)

BIHAR (13.00-14.00)

kalean erosteko aukera



Gourmet eta kalitate handiko produktuak, 42"-ko telebista tartean

SALMENA LEKUAK

- | | | |
|-----------------------|--|----------------------|
| - AEK euskaltegia | - Guridi TABERNA | - Mugika HARATEGIA |
| - Arriaundi OKINDEGIA | - Isasi OKINDEGIA | - Ogi Berri - Urkizu |
| - Bolintxo OKINDEGIA | - Izadi LORADENGA | - Otegui HARATEGIA |
| - Depor TABERNA | - Kultu TABERNA | - Udal Euskaltegia |
| - Ego Gain TABERNA | - La Golasina | - Untzaga PRENTSA |
| - El Corte Inglés | - Maria Ospitxal (Calbeton eta Jardinaeta) | - Zabaleta OKINDEGIA |
| - ...eta kitto! | | - Zubi Gain TABERNA |
| - Echeto - Urkizu | | |

Domekan, hilaren 26an, lurreko telebista digitala (LTD, gaztelerazko TDT) duten telebistak etxe guztietan berriz sintonizatu beharko ditugu, domekan bertan LTDko kateak beste frekuentzia batzuetatik emititzen hasiko direlako. Norberak telekomandoa erabilia egin beharreko lana izango da hori. Baina, horrekin batera, urtarrilaren 1a baino lehen antenetan egokitzapena egin beharko da, LTDko kateak ikusi nahi baditugu behintzat, eta horretarako antena teknikoari deitu beharko diogu eta, jakina, egokitzapena egiteagatik eskatzen duena ordaindu.

TELEBISTAK sintonizatu beharko ditugu domekan

Telebista frekuentziak lekuz aldatzeko kontua ez da beste barik sortu: dibidendu digitalaren liberalizazio prozesuaren eraginez, 4G abiadurako telefonía mugikor sare berriari lekua laga behar zaio eta, horretarako, frekuentziak lekuz aldatu behar dira.

Asteburuko aldaketak zortzi multiplexetan egingo dira eta, ohartarazi dutenez, domekan

telebista aparailua sintonizatzen ez duenak kateak frekuentzia ezberdinetan ikusiko ditu. Edozein modutan ere, multiplex lehiaketa egingo da, baina datorren urtera arte ez dute adjudikatuko eta, ordura arte, multiplex horretan ikusiko duguna "probako seinalea" izango ei da. Izan ere, 2015ean multiplex horrek bereizmen handiko hiru kanal izango ditu.

GALDERA OHIKOENAK

- Antenistari deitu behar diot?

Zu bizi zaren eraikinean hiru bizilagunetik gora badaude, seguruenik bere zerbitzuen premia izango duzu. Komunitadeko presidentek edo administratzaileak antenak egokitzeko gai den teknikoari lehenbailehen deitzea komeni da, aldaketa urtarrilaren 1erako eginda egon beharko da eta.

- Kanalak berriz sintonizatu behar ditut?

Bai, kanalak berriz sintonizatu beharko ditugu denok. Horretarako epea domekatik (urriaren 26tik) abenduaren 31ra arte egongo da zabalik. Hori egin ezean, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera kanal batzuk ezin izango ditugu ikusi.

- Nola sintonizatuko ditut kanalak?

Telebista batzuetan sintonizazioa automatikoki egiten da, baina beste batzuetan kanalak lokalizatzen joateko "menu" botoia erabili beharko da: "Menu" botoia sakatu eta pantailan zabalduko den menuan "instalazioa" edo "konfigurazioa" dioen tokiraino joan eta OK sakatu; jarraian, kanal-bilatzailea sartu eta "bilaketa automatikoa" edo "berriak sintonizatu" aukeratu eta itxoi ten geratu, kanal guztiak aurkitu arte.

- Zenbat ordaindu beharko dut antena egokitzeko?

Prezioari hiru faktorek (etxebizitza motak, antena egokitzeko kontratatzen den enpresak eta antenaren ezaugarriek) eragingo diote. Familia bakoitzak batzuek beste 20 euro ordainduko dituela kalkulatu dute eta Espainiako gobernuak antenak egokitzeko diru-laguntzak emango ditu (100-550 euro bitartekoak).

INSTALAZIO MOTAREN ARABERAKO EKINTZA

NORI ERAGITEN DIO?

Herritarren % 100ak bersintonizatu beharko du bere telebista

FAMILIA BAKARREKO ETXEAK

Banda zabaleko anplifikadorea

BERSINTONIZATU

HIRU ETXEBIZITZA EDO GEHIAGOKO ERAIKINAK

EGOKITU

Banda zabaleko anplifikadorea

BERSINTONIZATU

EGOKITU

Gune programagarria

Deitu instalatzaileari

EGOKITU

Kanal bakarreko anplifikadorea

Deitu instalatzaileari

+

BERSINTONIZATU BERSINTONIZATU

Nolako instalazioa daukadan ezagutu eta zer egin behar dudun jakiteko...

www.televisiondigital.es

954 307 796 - 901 201 004

Baina asteburukoa ez da izango telebistari lotuta egin beharko dugun aldaketa bakarra: urtea amaitu orduko ia etxe gehienetan antena kolektiboak egokitu beharko ditugu, teknikoari hori egiteko eskatuta. Salbuespena familia bakarreko etxeetan dauden antena indibidualak dira. Horien kasuan, nahikoa izango da domeka honetan telebista aparailuan egin beharreko sintonizazioa egitea. Edozein modutan ere, etxebizitzetako auzo elkarteko arduradunak antenistek lehenbailehen deitzea gomendatzen dute, urte amaieran beharra pilatu eta inor telebista ikusi barik ez geratzeko.

Informaziorako bideak

Hauen inguruan herritarrek

izan ditzazketen zalantzak argitzeko eta, orohar, LTDaren aldaketan inguruan informazioa zabaltzeko asmoz, urriaren 15az geroztik publizitate kanpaina dago abian Espainiako Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren eskutik. Horrekin batera, zalantzak argitzeko telefono bi (901 201 004 / 954 307 796) eta www.televisiondigital.es webgunea ipini ditu martxan. Webgunea horretan begiratu daiteke antenaren egokitzapenak eremu geografiko bakoitzean zenbat multiplex digitali eragingo dien (guri, EAEn lau dagozkigu) eta, beraz, zenbat ordaintzea tokatuko zaigun: multiplex baten egokitzapenak 150 euroko kostua izango du eta bosten egokitzapenak, berriz, 550 eurokoa.

DJ saioek beteko dute zapatu gaua

Bihar gauerditik aurrera hiru DJ saio izango dira aukeran herritik irutzen ibiltzeko premia barik: foballaren aitzakiarekin, partidu amaitzean denak dantzaz ipintzeko asmoa daukate **Hirurok tabernakoek**, gau erditik aurrera DJ Mister (Black Waxx, Durango) eta DJ B_ato (180 grados) disko jartzaileekin saioa antolatu dute eta.


Koskor tabernan, berriz, "We love disco" jaialdia antolatu du Funk Off! taldeak eta, besteak beste, We Love Dolce Vita, Osvaldo Wilson eta Gorku DJak ibiliko dira euren musikarekin tabernaren beheko pisua girotzen. Sarrera doan izango da eta, musikarekin batera, beste sorpresa batzuk egongo direla aurreratu dute antolatzaileek.

Jaia antolatzeko orduan "oso atzera begira" ipini dira eta saiorako aukeratu duten musika 70. hamarkada amaierakoa eta 80. hamarkadakoa izango dela azaldu dute: "Amerikako disco funkarrenetik hasita sintetizagailu kosmikoz betetako italo elektronikoeneraino doinuak eskainiko

ditugu eta, horretarako, horrelako kontuetan maisuak diren Bilboko hainbat lagun gurekin egotera gonbidatu ditugu. WLDV - We Love Dolce Vita bikotea Bilboko Kafe Antzokian gau propioa izatera ailegatu da eta doazen tokira doazela ere, dena hankaz gora ipintzea lortzen dute beti. BBK Live jaialdia ixten egon ziren eta EP bat daukate kalean".

Osvaldo Wilson "I-Real" bilakatzen omen da disco doinuak bata bestearen atzetik ipintzen hasten denean. Etxe ezberdinetan argitara emandako lanez gain, "edit" mordoa dauzka eta, ezagutzen dutenek diotenez, musika pintxatzen duen tokietan "jaiak eztanda egitea lortzen du".

Eta gonbidatu biekin batera, jakina, bertoko disko jartzaileak, DJ Gorkuk jardungo du. Jaialdia biribiltzeko photocall-a egingo



Dj Valdi izango da Punto y Aparte dantzalekuan.

dute eta, aurrekoetan bezala, Nikane Ilustracion eta Angoba Estilismo arduratuko dira arlo grafikoaz.

Eta bi saio horien artean bat aukeratze-ko zalantzan ibili ezker lasai hartu eta ez larritu, hirugarren saio bat ere badago eta: Magma Fest izenburukoa **Punto y Aparte dantzalekuan** egingo da eta kartela osatzen dutenen artean, besteak beste, asko-

ri telebistari esker eza-guna egingo zaien Dj Valdi (Jose Manuel Gonzalez Valderas) dago ("Otra Movida", "El hormiguero" eta "Tonterias las justas"). Cartagenako DJ-ak urteetako esperientzia dauka eta bere kurrikulum zabalean, besteak beste, Pablo Motosek gidatzen duen "El Hormiguero" telebista saioaren zortzi denboraldietan girotzeko era-

biltzen den musikarekin arduratu da. "Sax on the beach" bere bideoa, bestalde, milioitik gora lagunak ikusi dute 2014an. Eta berarekin batera Eibarko DJJC eta DJ Lucas egongo dira. Photocall-a, opariak eta beste sorpresa batzuk izango dituen jaialdirako sarrerak 10 euro balio du eta nahi duenak ticketea.com helbidean erosteko aukera dauka eta (Tas Tas eta Puntón ere salgai).

M^a ANGELES DIAZ CARRAL

2014ko urriaren 19an hil zen



FAMILIAREN IZENEAN, **eskerrik beroena** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



GREMIOEN GIDA

ANTENAK

BALATZ c.b.
Instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnua: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,
KONPONKETAK
ETA INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK
barra
raimonibarra@gmail.com
677 51 24 62
943 20 06 97

943 530 356
688 674 242
669 934 964
electricidad
ipareleks.l.
INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
Juan Gisasola, 4
943 257 869
610 532 922

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS
E.I.T.
ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA
info@ajttoficina.com tlf. 943 20 18 30
AJT Zihurtasuna s.l.p.
Toribio Etxebarria, 4 behea A



Informazio gehiagorako



943 20 67 76



GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta mantenimendua

IGELTSEROAK

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Eraikuntza Erreformak Igeltseritza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA

Jardines Iturgintza

Gasa Kalefakzioa Klimatizazioa Eguzki Energia

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

MUGICA ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

HANGROHE KANILEN BANATZAILEA ZORU ERRADIATZAILEA EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

PINTURAK

AIXA DECORACIONES
José Luis Irionda

Pintura orokorra Margotutako paperak Zoruen kolokazioa PVC zoruak Maketak Alfonbrak Kortinak Etxerakoak Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa. 943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto PINTOREAK

Zoru mota guztiak Pinturak Dekorazioa

Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura, FATXADAK, PINTURA BEREZIAK, ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

Waterpoloko alebinak bigarren Donostiako torneoan

Euskal Herriko hamabi taldek eta Zaragozako Stadium Casa-blancak parte hartu zuten Donostiako txapelketan, Urbateko gazteak finaleraino heldu ziren, hor Askartza Tigers-ekin 12-4 galduz. Aurretik, baina, hiru par-

tidu irabazi zituzten eta beste bat berdindu. Talde jubenilak, bestalde, 17-2 irabazi zion Gasteizko Lautadari denboraldiaren debutean eta asteburuan hasiko du berea senior taldeak Iruñan, Larrainaren aurka.



Lehen postura ohitutako kadete mailako gimnastak

Gipuzkoako txapelketan, Izar Leku tomeoan eta Gasteiz Hirian lortutako garaipenekin jarraitzeko, oraingoan Euskadiko txapela jantzi zuen Ipurua Klubeko kadete oinarrizko taldeak Gasteizen zapatuan jokotutako lehiaketan. Elene Varela, Nahia Arguiz, Teresa Miguel, Malen Txurruka eta Elena Sudepek adore handiarekin defendatu zuten



azaroan Espainiako txapelketan aurkeztuko duten bost pare mazekin egin beharreko ariketa. Aurretik, baina, Logroño Hiria trofeoan hartuko dute parte txapeldunak.

Eibar Rugby Taldea galtzaile

Ohorezko B mailan jokatzeko duen senior taldeak galdu egin zuen Unben Durangoren aurka jokotutako partiduan (10-15). Partiduan omenaldia egin zitzaion orain dela egun batzuk laga gaituen Fermín Etxaluze jokalarari-ohiari. 16 urtetik beherakoenen taldeak, bestalde, galdu egin zuen ere Unben Bilboko Unibertsitariorekin; Eibarko taldea Arrasateko jokalarari batzuekin osatu dute eta oraindik nabaritzen da egokitze falta jokalarari guztien artean.



Giro bikaina Debabarreneko VI. BTT Martxan

373 lagun elkartu ziren goizean goiz Mintxeta Kirolgunean, beorari eta malda gogorrekin aurre egin ahal izateko; proba amaitutakoan, berriz, 40 oparitik gora zozketatu ziren parte-hartzaile guztien artean. Goizeko 09.00etan hasitako proban, parte-hartzaileek bi ibilbide zituzten aukeran: bata 25 kilometrokoa eta bestea 45, Karakate mendia igaroz biak. Ibilbidea lehor eta basatzen gabe aukitu zuten bizikleta zaleek, Karakate Mintxetara jaitsiera tekniko zail samarra baina ederra, pagadi artean gozatzeko aukerarekin. Hiru anoa postu ipini ziren ibilbidean zehar eta laugarren bat helmuga puntuan, Eibarko CDR bizikleta dendari esker laguntza teknikorako guneekin batera. Urtez urte, 50 inguru boluntario izaten dira lanean Debabarreneko BTT Martxa arrakastatsua izan dadin.

Irujo-Xala final mailako lehia Astelenan

Juan Martínez de Irujo binakako eta buruz-buruko txapeldunak kaiolaren barrukoarekin borrokatu nahi du azken denboraldia eta, horretarako, ligaxkako lehen jardunaldian Xala izango du aurkari, Iparraldekoak astelehenean Tolosan Albisu kaleratu eta gero. Jaialdiko partidua nagusiaren aurretik eta atzetik beste bi buruz-buruko izango dira, promozio mailakoak: Tainta eta Altuna III.aren artekoa hasteko eta Rezusta eta Jakaren artekoa amaitzeko.



Gaur afizionatuak

Hiru partidua hartuko ditu gaur Katedralak, Klub Deportiboko pilotariekin: infantiletan, Gutierrezek Tolosako ordezkariari egingo dio aurre; jubeniletan, Arrillaga eta Urionabarreneak Andoingo bikoteari; eta, seniorretan, Unamunzaga-Bengoetxeak Usurbilgo bikotea izango du aurrez-aurre.

Eibarrek Granada hartuko du bihar gauean

Garitanoren taldeak baino puntu bat gutxiagorekin etorriko da bihar Ipu-ruara Joaquin Caparrosek zuzentzen duen talde andaluziarra. Horrek garrantzi berezia eskaintzen dio neurketari, denboraldi amaieran talde biak borroka berean izango direla aurreikusten baita. Granadak azken lau partidua galdu ditu, baina aurretik garaile irten zuen San Mamesetik; beraz, arriskua hor dago. Partidua 22.00etan hasiko da eta sarrerak salgai egongo dira gaur 20.00ak arte. Azken egunerako lagatzen dutenek aukera izango dute bihar Ipu-ruako txarteldegian erosteko. Jokalariei dago-kienez, min hartuta zeuden Arruabarrena eta



Dani Garcia
Neymarren aurrean.

Del Moral taldearekin entrenatu dira. Bestalde, Eibar KE akzionisten akreditazio tituluak emititzen hasi da. Ohiko batzarra azaroaren 20an egingo da Astelena frontoian.



Aitor Hernandezek bi lehenen artean sartzen jarraitzen du

Aurreko asteburuetako bideari jarraituta, oraingoan ere Specialized-Ermua taldeko txirrindularia irabazlea izan zen zapatuan eta bigarrena domekan. Medina de Pomarren zapatuan jokatuak proban Aitor Hernandezek nagusitasun osoz irabazi zuen, hasieratik Kevin Suarez eta Ismael Barba atzean lagata. Domekan, bestalde, Villarcayoko ziklo-krosean Kevin Suarezek hartu zion aurrea, ermuarrak izan zituen hiru erorketak aprobetxatuz. Hurrengo geralekua domekan izango du Aitorrek, Karrantzan jokatu den C2 mailako nazioarteko proban.



Asier Cuevas herri-lasterketa bihar 18.00etan

Bihar arratsaldean jokatuko da Asier Cuevas herri-lasterketaren 2. edizioa, arratsaldeko 18.00etan hasita. Iazko ibilbide bera izango du, zazpi kilometro eta erdiko distantzian. Jakina, zailtasun gutxikoa izango da. Korrikalari guztiek oroi-garria jasoko dute eta aukera izango dute lasterketa ondorengo zozketan opariak jasotzeko. Oraingo honetan antolatzaileek Roberto Agirregomezkorta gogoratu nahi izan dute: bera izan zen Asierren lehen entrenatzailea eta Bilboko maratoiko lehen irabazlea.

HAMAR URTE LITERATUR TERTULIETAN, 845 BAZKIDE

...eta kitto!
ko
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu 11, solairuaretea. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com

urteko kuota

- 16 urtetik behera
5 euro
- Lanean dihardut
45 euro
- Langabea, ikaslea,
jubilatua, etxekoandrea
15 euro
- Borondatez, diru
gehiago eman nahi dut
..... **euro**

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____ Herria: _____
Telefona: _____ e-maila: _____
Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____
Kontu zenbakia (20 digito): _____

Argazkilaritza saria udalarentzat

Vilanova i la Geltrú-n egin den Argazkilaritza Konfederazioaren XXVIII. Kongresuan "Mezenas" kategoriakoa eman diote Eibar-ko Udolari, Klub Deportiboaren Argazkilaritza Taldekoek horretarako hautagaitza aurkeztu eta gero. Saria jasotzeko ekitaldian Esther Kareaga Kultura zinegotziak ordezkatu zuen Udala eta, "Eibar Indalecio Ojanguren, Castrillo Ortuoste, Plazaola edo Ares familia bezalako argazkilaritza handien sorterrria izan dela" gogora ekartzearekin batera, Klub Deportiboaren lana eskertu nahi izan zuen, "euren etengabeko kultura-jarduera gabe sari hau ezinezkoa litzatekeelako". Espainiako Argazkilaritza Konfederazioak 1992az geroztik urtero saritzen ditu argazkilaritzaren mesedetan lan egiten dutenak eta "Mezenas" kategorian argaz-



Ekitaldian Esther Kareaga Kultura zinegotziak ordezkatu zuen Udala. ki-talderen bati bere proiektuak garatzen lagundu dioten erakundeak saritzen dituzte.

Zeramika erakusketa Topalekuan



Azaroaren 2ra arte egongo da ikusgai Carmen Mostaza eibartarraren zeramika lanen erakusketa Topalekuan, Arrate Kultur Elkartearen erakusketa aretoan. Artelanak ikusteko astegunetan 19.00etatik 21.00etara joan daiteke eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



Barixakuak jolasian martxan

...eta kitto! Euskara Elkarteak Gurasoak Berbetan egitasmoa guraso eta horien seme-alabentzat antolatzen duen Barixakuak Jolasian ekimenak aurreko barixakuan izan zuen ikasturteko lehenengo saioa. Oraingoan bi eskulan egin zituzten umeei gurasoen laguntzarekin: argazkiak sartzeko markoa eta liburu-markatzaile dotoreak. Hilean behin, barixaku batean, egiten dira tailerrak, ...eta kitto!-n bertan. Parte-hartzaileek euskara praktikatzeko Berbetan-eko taldeetan dihardute.

Olio-dastaketa azaroan

Datorren azaroaren 11rako, martitzena, ...eta kitto! Euskara Elkarteak olio-dastaketa saioa antolatu du. Iker Diaz de Cerio Arabar Errioxako Olio eta Olibondoaren Mahai-ko kidearen eskutik egingo da saioa, arratsaldeko 19.00etatik aurrera, ...eta kitto!-n bertan. Izena emateko epea hurrengo astelehenean, urriak 27, hasi eta azaroaren 7an amaituko da. 5 euro balio du, 4,50 euro ...eta kitto!-ko bazkideentzat. Izena emateko ...eta kitto!ra deitu (943200918) edo bertatik pasa daiteke (Urkizu 11, solairuarte). Gehienez ere 20 lagunekoa taldea osatuko da.



Asteburu mikologikoa Deporren eskutik

Asteburu osoa bete zuten Deporren eskutik egindako XVI. Jardunaldi Mikologikoek: barixakuan Pedro Arri-llagaren hitzaldiarekin hasi eta domekan Deporren egindako bazkariarekin amaituta, bien bitartean perretxiakoak izan ziren jaun eta jabe. Urteroko ekitaldiekin batera, aurten lehen aldiz egin diren herri-kirol erakustaldiak eta hainbat tabernatan egindako perretxi-ko pintxo dastaketak harrera ona izan zuten.

Liburu eta Disko azoka

Aurreko asteko barixakuan zabaldu zuten domekara arte Untzagan martxan egongo den Eibarko Liburu eta Disko Azoka. 11.00etatik 14.00etara zabalduko dute eta 16.30etatik 20.30etara eta azokan salgai dauden liburu eta diskoak %10eko deskontuarekin erosteko aukera egongo da.

"Las dos bandoleras" gaur 20.30etan

Compañía Nacional de Teatro Clásico eta FEI Factoría Escénica Internacional taldeen eskutik ailegatuko da Coliseo antzokira "Las dos bandoleras" izenburuko antzezlan gaur 20.30etan (20 euro). Carme Portaceliren zuzendaritzapean, gaur egun nekez ikus daitekeen aktore zerrenda luzeak hartuko du parte antzezlan taularaten: Helio Pedregal, Carmen Ruiz, Macarena Gomez, Gabriela Flores, Llorenç Gonzalez, Albert Perez, Da-



vid Luque, David Fernandez "Fabu" eta Alex Larumbe. Eszenatoki gainean emango dituzten bi orduetan, antzezleek Lope de Vegak idatzitako Teresa eta Ines ahizpen istorioa kontatuko dute: gizonak borrokatzen denbora alperrik galtzen duten bitartean, aita eurentzat zituen planei kasu egin barik, herrian bolada baterako dauden soldadu banarekin maitemindu eta biek euren maitasuna haiei eskaintzen diete. Soldaduak horrekin ederto

aprobetxatuko dira, baina emakumeek konpromisoa eskatzen dietela ikusi eta ihes egingo dute. Neskak frontieraino bila joango zaizkio, baiña soldaduek ezagutuko ez bilituzte moduan jokatu dute eta ahizpa biak, erabat minduta eta amorrata, mendira joan eta euren bidean gurutzatzen diren gizon guztiak hiltzen hasiko dira.

Indalezio Ojangureneko lanak ikusgai

Gaur arratsaldean, 19.00etan inauguratuko dute Portaleko erakusketa aretoan Indalezio Ojanguren XXVII. Argazki Lehaketan saria jaso duten lanak, epai-mahaikoek erakusketa osatzeko aukeratutako beste hainbat argazkirekin batera. Azaroaren 16ra arte zabalik egongo den erakusketa martitzenetik domekara bitartean bisitatu daiteke, 18.30etatik 20.30etara.



Zapatuan 17.00etan "Alegria, palabra de Gloria Fuertes" umeendako antzezlan eskainiko du Teatro de Maltak (6 euro) Coliseoan. Margarita Blurkek eta Delfín Casetek zuzendutako lanak ia ordubete iraungo du eta taula gainean antzezle bakarrak, Marta Torresek jardungo du. Umeei benetan obra zabala eskaini zien Gloria Fuertes zenari omenaldi modukoa da antzezlan eta beraren imaginazioak eta lumak sortutako pertsonaia eza-gunak berriz bizirik ikusteko tartea eskainiko dio publikoari.

laburrak

ARGAZKI IKASTAROA

Oinarri-oinarrizko argazki ikastaroa antolatu dute Arrate Kultur Elkarteak, aurretik ezer ez dakitenentzat. Klaseak azaroak 5, 12, 19 eta 26an eta abenduak 1ean izango dira, 19.30etatik 21.30etara eta prezioa 30 eurokoa da (Kultuko bazkideentzat 25 euro). Izena emateko edo informazioa eskatzeko bulegora joan (astelehenetik eguenera, 17.00etatik 19.00etara), 943202299 telefonora deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke.

CIELITO ELGOIBARREN

Hiru urteko etenaldia eta gero, Cielito Musika Bandak Elgoibarko Herriko Antzokian joko du domekan, 12.30etan. Aurretik, 10.30etan erdialdeko kaleetan kalejiran ibiliko dira. Kontzerturako egitaraua jarraian: "Onda" (pasodoblea, J.M. Arnau), "La revoltosa" (preludioa, R. Chapi), "Una noche en Granada" (poema sinfonikoa, E. Cebrían Ruiz), "Romanza" (kontzertina, Bacarisse) eta "John Williams in concert" (selektzioa, J. Williams).



Zapatuko ipuina bueltan

Bihar bueltatuko da Zapatuko Ipuina umeen liburutegira, 18.00etatik aurrera Oihana Etxegibel Albedrik eskainiko duen "Nola dastatu ilargia eta beste ipuiñ batzuk" izenburuko saioarekin. Betiko moduan sarrera doan izango da eta ia ordubete iraungo duen saioa 3 urtetik aurrerako umeentzat pentsatuta dago.


Umeendako antzerkia



Ipurua Aurrerak proposamen berria aurkeztu du

Eibar Foball Taldeak proposatutako proiektuaren aurkakoa aurkeztu zuten martitzenean Ipurua Aurrerakoek. Klubak Iparraldeko tribunan egin nahi dituen lanen orde, auzoko talde horrek Elgetara bideko tribunan proposatzen ditu lan horiek egitea, "errazagoa, azkarragoa eta kalte gutxien" dakarrelako.

Ipurua Aurrerak Bilboko arkitektoen bi enpresak egindako proposamena aurkeztu zuten martitzenean. Hor Eibar Kirol Elkar-teak proposatutakoaren alternatiba eskaintzen da, beti ere "handiagotzea, zerbitzuak eskaintzea, estetika zaintzea eta kalterik ez egiteari" erreparatuz. Proiektu biren artean dagoen alde handiena dago Ipurua Aurrerak Hegoaldeko Tribunan eragitea proposatzen duela, klubak lan gehienak Iparraldekoan egitea nahi duen bitartean: "Hegoaldeko tribuna horren aforoa bikoiztu egingo da -gaur egungo 2.300etik 4.630era pa-



Hegoaldeko Tribunan eragitea proposatzen dute auzotarrek.

satzeko- eta Mendebaldeko Tribuna, anexoarena, 1.230etik 2.300ra pasatuko da".

"Batez ere, oreka da bilatu nahi izan duguna, klubak dituen beharren eta estadia ingurunean izan behar duen integrazioaren artean". Auzotarren proposamenik, gainera, 9.500 jarleku eskaintzen ditu: "Iparraldeko eta Ekialdeko tribunei eustearekin batera, Hegoaldekoari ekitea proposatzen dugu, txapela handituta batez ere, eta izkinetan beste 826 jarleku egin daitezke". Auzotarren elkarteak proposatzen duenez, oskol modukoa egingo da (oraingoa aldatu egin beharko da, eguzki panelak eta guzti) eta foball zelai ingurukoa bi gorputz behe eta beste bi altuekin geratuko da, "beti ere alde hori eskalonatuz, estetikoago geratzeko".


Auzoketutakoa ez da proposamena baino: "Aurreproiekturik ere ez dugu egin, abiapuntutzat hartu dugulako eta itxita ez gaudelako. Denon artean adostea gustatuko litzaiguke". Lanak

handiagoak badirudite ere, aurkezpenean egon ziren arkitektoek esan zuten "klubak orain arte manejatzen duen kostoaren bueltan egongo dira; baliteke merkeago ateratzea ere. Eta azkarrago amaituko dira, material aurrefabrikatutakoa erabiliko delako eta dena kanpotik egingo delako".

Gaur egungo Erdiko Tribuna edo Hegoaldekoan Bilboko arkitektoek "7 metroko kalea egitea aurrikusten dute, 108 metroko luzerakoa, autobusak eta autoak sartzeko erabiliko dena, eta baita aparkaleku moduan". Euren asmoetan dago, "ia ezer ikutu gabe, bakarrik txapela kendu eta berria ipintzearekin, hiru hilabetetan amaitu daitezkeela lanok". Gainera, ez diote ezetzik esaten Iparraldeko tribunan aldaketak egiteari: "Hor ere jarleku gehiago joan daitezke, 600 bat".

Plenoaren zain

Klubeko arduradunei aurreko astean aurkeztu zieten proposamen berri hau eta alderdi politiko guztiekin egon dira dagoeneko. Alegazioen epea asteburu honetan amaituko da eta horregatik dabilta "azken ukituak" ematen Ipurua Aurrerakoek eurak aurkeztuko dituztenei. Hilaren amaieran egitekoa zen Plenoa ere baliteke atzertzea, udal agentariak komentatu digutenez: "Oraindik ez dugu datarik ipini". Jakinda bihar amaitzen dela alegazioak egiteko epea, ondoren Hirigintza batzordea batuko da eta hortik ateratzen den alderdien jarrerak erabakiko du plenoan hartuko den erabakia (orain arte PSE eta PP Eibar F.T.-rekin bat datoz, EAJ abstenitu egin da eta EH Bilduk Ipurua Aurrerakoekin egin du bat). Auzotarren elkarteak onartzen du, dena dela, "klubekoek ibilbidea egin dutela eta badutela prisa pixka bat ere gauzak lehenbailehen egiteko".



Loren Quindos (IPURUA AURRERA):

"Zergatik atek itxi mahai bueltan adostasun batera iristeari?"

– Zein aukera ikusten duzu zuen proposamena onartua izateko, osotasunean edo neurri batean?

Badut itxaropena, mahai bueltan bildu eta bes-telako aukerak aztertzeke gai izan gaitezkeela. Baita elkar-ulertzera heltzeko.

– Zelan ikusi dituzu proiektuak orain arte egin dituen urratsak? Ados zaudete Eibar KE-k eta Udalak hartutako jarrerekin?

Orain arte ez dugu babes handirik izan eta el-karrizketa ez da behar beste erraztasunarekin eman. Esaterako, Lurra-ren Legearen 68. artiku-luak dioena bete barik nahi zuten aurrera egitea: hoz zehaztu behar da zergatik egiten den aukera baten alde eta bazterten diren besteak.

– Zelan laburbilduko zenuke zuen proiektuak



eskaintzen dituen aban-tailak?

Zelai guztia, bere osotasunean, josten du gure proiektuak. Politagoa da; kontrakorik ezin da esan. Gainera, 1999an egin ziren hobekuntza lanetan ere, auzotarrekin eginda-ko bilerez baliatu ginen.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, GERMAN maittia, bixar zortzi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Ongi etorri, URKO! Gure bihotza argitzen daben eguzki barrixa zara. Milla muxu aitta eta amaren partez.



Zorionak, IBAN, atzo bi urte egin zenduaz-eta. Muxu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MIKEL, bixar 10 urte beteko dozuz-eta. Muxu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, KEPA, gaur bost urte egingen dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, AIA, atzo lau urte egin zenduaz-eta. Muxu erraldoi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LEIRE Larrañaga Arrate, gaur hiru urte egingen dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Naiaren partez.



Zorionak, NEREA Azpiazu Boyero!, domekan 4 urte beteko dozuz-eta. Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, OINATZ, domekan urte bi beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat Eider, Luken eta famelixaren partez.



Zorionak, MIREN, gure etxeko printzesak atzo bi urte egin zittuan-eta. Muxu haundi bat Patxi, aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, IGOR, astelehengan urtetxua egingo dozu-eta. Muxu haundi bat etxeko danen eta, batez be, Alainen partez.



Zorionak, ENARA! Domekan, 9 urte!!! Patxo potolo bat etxeko danen partez.



Zorionak, EDU (hillaren 16xan) eta ITZA (atzo, 11 urte). Ondo-ondo ospatu bixak. Laztan haundi bana famelixa guztiaren partez.

hildakoak

- Jose Antonio Andikoetxea Sologaitua. 84 urte. 2014-X-9.
- M^a Angeles Diaz Carral. 48 urte. 2014-X-19.
- Felix Zubizarreta Albizu. 88 urte. 2014-X-20.

jaiotakoak

- Mariam Benslaiman. 2014-X-12.
- Xabier Peñafiel Agurto. 2014-X-14.
- Urko Iso Sasieta. 2014-X-14.
- Paula Angulo Benito. 2014-X-16.

(ANTZOKIAN)
26an: 17.00

"Frozen"

Zuzendaria:
Chris Buck



zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
25ean: 17.00, 19.45, 22.30
26an: 17.00, 20.00
27an: 20.30

"Marsella"

Zuzendaria: Belen Macias



(2 ARETOAN)
25ean: 19.45, 22.30
(ANTZOKIAN)
26an: 20.00

"Lasa y Zabala"


Zuzendaria: Pablo Malo



(ANTZOKIAN)
25ean: 19.45, 22.30
(2 ARETOAN)
26an: 20.00
27an: 20.30

"The Equalizer / El protector"

Zuzendaria: Antoine Fuqua



(2 ARETOAN)
25ean: 17.00
26an: 17.00

"Khumba"

Zuzendaria: Anthony Silverston



BARIXAKUA 24

INDIANOKUA

16.30. Sukaldaritz. Gaztelekuan.

BILERA

18.00. Nalua Eibarko gazte feministen taldea. Sarrera librea. Portalean (3. pisuan).

TERTULIA LILA

18.00. "Sexualidad y deseo", Zaida Fernandez-ekin. Sarrera librea. Andretxean.

ANTZERKIA

20.30. "Las dos bandoleras" (Cía Nacional de Teatro Clásico - FEI). 20 euro. Coliseoan.

ZAPATUA 25

GAZTETXEAK 3 URTE

10.30. Asanblada: "Zer behar du gaztetxiak? Bota proposamenak".

14.30. Bazkaria.

17.00. Pictionary" (galderak, mimika...).

18.30. Erromeria (Miren Gisasola...). Gaztetxean.

BIDEZKO MERKATARITZA

10.30/13.30. Produktuen salmenta, Aldatzen-en eskutik. Toribio Etxebarrian.

1959-AN JAIOTAKOAK

12.00. Jaiaren hasiera. Untzagan.

ODOL-EMAILEAK

13.15. Harrera eta agurra.

13.30. Dominak banatzea.

14.30. Bazkaria. Untzaga Plaza hotelean.

UMEENDAKO ANTZERKIA

17.00. "Alegria, palabra de Gloria Fuertes" (Teatro de Malta). 6 euro. Coliseoan.

INDIANOKUA

17.00. Bola-txapelketa eta "Gau Beltzerako" apaingarriak. Gaztelekuan.

UMEENDAKO TAILERRAK

17.30. "Mamu dibertigarria".

18.00. "Halloween", aurpegiak margotzeko tailerra. El Corte Inglesean.

ZAPATUKO IPUINA

18.00. "Nola dastatu ilargia eta beste ipuin batzuk", Oihana Etxegibelen eskutik. Umeen liburategian.

HERRI LASTERKETA

18.00. II. Asier Cuevas herri lasterketa (umeak). Nagusiak 18.30etan hasiko dira. Irteera eta helmuga Depor parean.

FUNK OFF

00.00. "We love disco" jaialdia: We Love Dolce Vita, Osvaldo Wilson eta Gorku DJak. Sarrera doan. Koskor tabernan.

DJ SAIOA

00.00. DJ Mister (Black Waxx, Durango) eta DJ B_ato (180 grados). Hirurok tabernan.

MAGMA FEST

00.00. Dj Valdi ("Otra Movida", "El hormiguero" eta "Tontorias las justas"), DJJC eta DJ Lucas (Eibar), photocall-a, opariak... Sarrera 10 euro. Punto y Aparten.

DOMEKA 26

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Banda. Elgoibarko Herriko Antzokian.

INDIANOKUA

17.00. Bola-txapelketa eta "Gau Beltzerako" apaingarriak. Gaztelekuan.

ASTELEHENA 27

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" astronomiari buruzko saioa. Beheko Tokian.

MUSIKALDIA

20.30. Gemma ganbera abesbatza (Hungaria). 5 euro. Coliseoan.

MARTITZENA 28

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Etika", Iñigo Retolazaren eskutik. Armeria Eskolan.

JOSKINTZA TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

BILERA

19.00. Auzokideekin bilera, udalak deituta: erdialdekoak. Untzaga jubilatuen egoitzan.

HITZALDIA

19.30. "La anticoncepcion hoy: mitos y realidades (todo lo que querias saber y temias preguntar", Estefania Abanto eta Gorka Barrenetxea sendagileen eskutik. Sarrera librea. Portalean.

MUSIKALDIA

20.30. SYC ganbera abesbatza (Singapur). 5 euro. Coliseoan.

EGUAZTENA 29

IKASTEN

08.11. Kortezubira, Oma-ko basora txangoa. Zornotzara joateko trenan Estaziñotik (08.13etan Ardantzatik).

INMIGRAZIO JARDUNALD.

18.30. "Hitz egin dezagun inmigrazioaz" solasaldia, SOS Arrazakeria eta Gorka Errasti Inmigratio teknikariaren eskutik. Moderatzailea: Silbia Hernandez (...eta kitto!). Udaletxeko patioan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

EGUENA 30

BILERA

18.30. "Lagundu Eibar hobetzen", EAJ-k herritarren proposamenak batzeko ekimena. Urkizun (Zubi-Gain taberna aldamentean).

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

HOROSKOPOA

ARIES

Plumiferoa, bufanda, eskularruak... denak baztertuta! Zer janziko duzu eguraldi honekin sexy izaten segitzeko?

TAURUS

Espero ez duzun aspaldiko lagun batekin topo egin eta orduko suak lagatako txingarrak herrero ixotuko dira. Benetan!

GEMINI

Ardura larregi dituzu eta konturatu egin behar duzu dena ezin duzula konpondu. Ez kargatu motxilan zureak ez direnak.

CANCER

Dendetan turroiak ikusi eta Gabonetan gaudela sinistu duzu? Gizajo halakoa, etzidamu koko-jantzita ikusiko zaitugu.

LEO

Facebook-eko erregea zara: zenbat lagun eta zenbat hitzordutara zauden gonbidatuta! Kontuz estresarekin.

VIRGO

Noizean behin zapatatxoak eta ispilua laga eta txandala ipintzea ez da pakatu. Naturalago jantzita, askoz hobeto zaude.

LIBRA

Ez zarela enteratzen, ez dizutela ezer kontatzen... Zelan kontatuko dizu inork ezer egun guztian MP4an bazaude?

SCORPIUS

Non gelditu da udako kolorea? Denok zuritu gara, baina zuk duzun kolorea ia transparentea da. Autobrontzeadoreaaa!

SAGITTARIUS

Jaso duzun oparia ez zaizu gustatzen, baina ez zara esaten ausartzen. Lasai: egia esanez gero, ez du minik hartuko.

CAPRICORNIUS

Esan dizuena sinesgaitza iruditzen bazaizu ere, tamalez egia da. Onartu egizu lehenbailehen eta aurre egin!

AQUARIUS

Ikasketak lagata dauzkazu eta aurrera doa ikasturtea. Ez laga dena azken unerako; bestela, ez duzu gaudituko.

PISCIS

Ezustean harrapatu zaituen berri hori onartzea kostatzen bazaizu ere, aurrera. Etorkizuna hor, ez galdu itxaropenik!

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Urriaren 29ra arte**
"ZURRUMURRUAK DESEGITEN" erakusketa.
Untzagako Jubilatuta Etxean
- ✓ **Urriaren 31ra arte**
"KIROLA/ATLETISMOA" argazki erakusketa.
Klub Deportiboan
TXUS LEAL-EN argazki erakusketa.
Portalea tabernan.
OSCAR BLANCOREN argazki erakusketa.
El Ambigu tabernan
- ✓ **Azaroaren 2ra arte**
CARMEN MOSTAZAREN zeramika erakusketa.
Topalekuan.
- ✓ **Azaroaren 9ra arte**
MARIA ROMERO, MIKEL RUIZ PEJENAUETE
ETA RAISA ALAVAREN "Loturak" erakusketa.
Portalean.
- ✓ **Azaroaren 16ra arte**
INDALEZIO OJANGUREN XXVII. ARGAZKI
LEHIAKETA". Portalean.

farmaziak

- ✓ **barixakua 24**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **zapatua 25**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **domeka 26**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **astelehena 27**
EGUNEZ **Castañó** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **martitzena 28**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguztana 29**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **eguna 30**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **barixakua 31**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egurnero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egurnero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egurnero: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egurnero: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egurnero: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egurnero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

lehiaketak

- ✓ **Eibarko XI. Pintxo Lehiaketa**
Izen-ematea: **Urriaren 31ra arte.** Informazioa: Arrate Kultur Elkartearen bulegoan (astelehenetik eguenera, 17.00etatik 19.00etara), 943202299 telefonoan edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita.
- ✓ **San Andres bertso-paper lehiaketa**
Lanak aurkeztea: **Azaroaren 10era arte.** Informazioa: ...eta kitto! Euskara Elkartean, 943-200918.

Ikastaroak

- ✓ **Argazki ikastaroa (oinarri-oinarrizkoa)**
Noiz: azaroak 5, 12, 19 eta 26 eta abenduak 1 (19.30-21.30) Arrate Kultur Elkartean. **Izen-ematea:** bulegoan, astelehenetik eguenera (17.00-19.00), 943-202299 telefonoan edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita. **Prezioa:** 30 euro (25 bazkideentzat).

	9			2	4			
6	2				7		4	
		4	3	8				2
	1				3			
		6				4		
			2				5	
9				4	2	1		
	4		5				8	6
			8	7			2	

SUDOKUA

2	6	7	9	5	8	1	4	3
9	4	8	3	1	6	5	2	7
1	3	5	2	7	4	9	6	8
5	9	2	4	3	1	7	8	6
4	1	3	8	6	7	2	9	5
8	7	6	5	9	2	3	1	4
6	2	9	7	8	3	4	5	1
3	8	4	1	2	5	6	7	9
7	5	1	6	4	9	8	3	2

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun eta trasteroa (130 m² erabilgarri edo 156 eraikiak). Igogailua. Argitsua. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 626-203838 edo 699-495249.
- Pisua salgai beheko solairuan J.A. Mogel kalean. 3 logela, egongela, sukalde eta komun. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 619-619254. Cristina.
- 7 urteko etxebizitza salgai Mendaron. 3. solairua (118 m²) eta bi garaje bat ginik (43 m²). 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun, hall-a eta terraza (20 m²). Trastelekua aukeran (27 m²). Komunitateko lorategia eta haurrentzako jolas-gunea. Argitsua eta bistak. Tel. 616-668742.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 685-380585.
- Pisu ia berria alokagai Elgetan. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta 2 komun. Igogailua eta kalefakzioa. Egoera onean eta sartzeko moduan. Tel. 606-083992.
- Pisua hartuko nuke Eibarren errentan. 3 logelakoa. 450-500 euro hilean ordaintzeko prest. Tel. 632-607193.

1.3. Konpartitzeko

- Eibarren pisua konpartitzeko lagun baten bila nabil. Tel. 660-833346.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Gazteentzako lokala alokagai. 70 m². Barra eta zerbitzuarekin. Erdialdean. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 633-244397.
- Erizain laguntzailea eskaintzen da goizez orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 616-607121.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-846244.
- Geriatria titulua daukan emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 652-532589.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-395829.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan orduka zein interna lan egiteko. Tel. 602-186462.
- Gizona eskaintzen da lan egiteko. Tel. 628-740765.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-800519.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-691378.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Orduka. Tel. 686-265293.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-768803.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak, tabernak eta pegorak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 631-282203.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 671-258740.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da barrako zein jangelako kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 699-286521.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko. Tel. 631-075101.
- Mutil euskalduna eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-075101.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 633-889235.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 640-315602.
- Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-394038.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 679-912841.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-523426.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 606-354982.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita ospitalean ere. Tel. 632-607193.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 632-337083.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 631-771952.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 650-513412.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta zama-lanetan jarduteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 602-309313.
- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 682-277198.
- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 697-754174.
- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-176974.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 674-713262.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 689-391261.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-186462.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Interno. Esperientzia. Tel. 628-740765.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-259560.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna. Tel. 649-626975. Landi Mora.
- Geriatria titulua duen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 652-532589.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 602-057896.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 637-004773.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Ordu-tegi zabalak. Tel. 655-677035.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 680-973549.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia. Oinarriko euskera maila. Tel. 630-268100. Manoli.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
- Neska eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko: pegorak, bulegoak... Tel. 638-421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 603-740755.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserriko lanak egiteko. Esperientzia tailerrean tornero lanean. Tel. 633-892829.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-768803.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-667062.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere), umeekin egoteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-417995.

4.2. Langile bila

- Sukalde-laguntzailea behar da Eibaroko jatxe batean. 5 urteko esperientzia gutxienez. Bidali curriculum-a: 46 posta-kutxatila.

5. Irakaskuntza


5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Heziketa Ziklotarako prestakuntza. Matematikak, Ekonomia, Fisika, Kimika, Euskera, Ingelesa, Gaztelania eta Estatistika. Tel. 685-739709 eta 943-127365.
- Euskarazko klaseak ematen ditut. Azterketarako prestaketa: perifikak, HABEren mailak, EGA. Baita ikastaroak eta klase partikularak. Tel. 620-608065.
- Abesten ikasteko klaseak ematen dira Eibarren: pop, rock, jazz, folk... Musikalak eta kastingak prestatzeko, zure ahotza era zuzen batean erabiltzeko. Tel. 622-885340.

6. Denetarik

6.3. Galdu/Aurkitu

- Astelehenean ume txiki baten zapata arrosa galdu genuen Bidebarrieta inguruan. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 620-608065.
- Zilarrezko pultsera agertu zen Sagardo Egunean. Txapan izena du. Jabea ...eta kitto!-tik pasa daiteke. Tel. 943-200918.
- Zapatuan belarritakoa galdu nuen San Andres egoitza eta Untzaga artean. Urrezkoa da, hari berdearekin. Tel. 943-821279.



5ean pentsatzen? Hyundai Cinking.

5 zenbakia buruan izateak, lasai egotea esan nahi du, Cinking egotea. Horregatik, Hyundai-ren Cinking-ekin, datozen 5 urteotan zure Hyundai-z gozatzea, besterik ez duzu buruan izango.

- 5 urteko garantia km mugarik gabe
- 5 urteko asistentzia errepidean
- 5 urteko mantentze-lana
- eta orain Hyundai i30 eguneko 5€-gatik

5€ /eguneko (150€ hilean)	60 kuota	Zordun-tasa: 7,75%
	Sarrera: 4.057,40€	UTB: %9,46

Hyundai i30 5p 1.4 MPI (100CV) ESSENCE-rako eskaintza



OARSO CAR ELGOIBAR
HYUNDAI KONTZESSIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO
943 74 14 80
Olaso Polig., 17.



Hyundai i30 Gama (bost ate).
CO2 Emisioak (gr/km): 109-145.
Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,1-6,0

Hyundai i30 SP 1.4 Mpi (100CV) ESSENCE-erentzat finantziazio adibidea. Prezioa eskura ordainduta 11.499,00€. Sarrera 4.057,40€. 60 hileko epea, 148,29€-ko kuota 1 eta 150,00€-ko 59 kuota. Zordun Tasa Finkoa %7,75, T.A.E. %9,46 (T.A.E.-ak eta lehen kuotak aldatuta txikia izan dezakete kontratua sinatzeko egunaren eta kuotak ordaintzeko egunaren arabera). Irekiera komisioa %3,00 223,29€, eskura. Kreditorearen Zenbateko Osoa 1.779,98€, Zordun-dutako Zenbateko Osoa 9.221,58€. Kontratazio eguna 2014/09/09 eta lehen ordainketa 2014/10/05 izanik, 2014/10/31ra arte balioko du eskaintza honek. Santander Consumer, E.F.C., S.A.-ren eskaintza, bere azterketa eta onarpenari lotutakoa. Penintsulan eta Balearrean bizi direnentzako eskaintza. Matrikulazioa, promozio-deskontua, kontseziarioaren ekarpena eta PIVE G Plana (Gobernaren PIVE Planaren baldintzak betetzeari lotutakoa) barne. Zehaztapen eta baldintzei lotutako Cinking Programa. Ibilgailuaren finantziarioari lotutako mantentimendua. Begiratu Hyundai.es/cinking-en.

Abokatuak • Aisialdia • Akademiak • Albaitariak • Alfonbrak • Altzariak • Argazkildendak • Argiztapena • Arkitektoak • Aroztegiak • Arri-irteerak • Aseguruak • Asesoriak • Autoak • Autoeskolak • Bankoak • Belardendak • Bidaiak Bideoak • Bideo klubak • Bitxitegiak • Bulego fresneria • Dekorazioa • Dentistak • Elektrizitateak • Elektrodomestikoak • Errehabilitazioa • Erreformak • Errotulazioa • Estankokoak • Estetika • Farmaziazkoak • Garagardotegiak • Garraloak • Gasolndegiak • Haurzaindegiak • Euskaltegiak • Ikastetxeak • Hotelak • Hotelekoak • Inprenta • Iturgnak • Janaridendak • Jantziak • Jantzidendak • Jateetxeak • Jostailuak • Kirolendak • Koltxoidendak • Komunikabideak • Korapenak • Leioak • Lentzeria • Liburudendak • Loradendak • Matrikulazioak • Análisi klinikoak • Dermatologia • Dietetika • Otorrinolaringologoak • Oftalmologoak • Otorrinoak • Podologoak • Psikiatra-riak • Psikologoak • Optikak • Ortopedia • Pertsianak • Pinturak • Sindikatuak • Sofak • Sukaldeak • Tabernak • Tapizeriak • Torlojugintza • Zeramikak • Abokatuak • Aisialdi-ak • Argiztapena • Arkitektoak • Aroztegiak • Arri-irteerak • Belardendak • Bidaiak Bideo erreportaiak • Bideoak • Bideo klubak • Bitxitegiak • Bulego fresneria • Dekorazioa • Dentistak • Elektrizitateak • Elektrodomestikoak • Elkar-erlazioak • Estetika • Farmaziazkoak • Ferretariak • Fotografiak • Gasolndegiak • Gozokiak • Gozotegiak • Gureak • Hotelak • Igeltseroak • Ileapalndegiak • Jantziak • Jantzidendak • Jateetxeak • Jostailuak • Komunikabideak • Komunitateak • Kompresio-eraketa • Loradendak • Makina saltzalleak • Mar-kiak • Dermatologia • Dietetika eta nutrizioa • Errekonozit-zaioak • Podologoak • Psikiatria • Psikologoak • Mer-katuak • Optikak • Ortopedia • Pertsianak • Pinturak • Pizzeriak • Plastikoa • Sindikatuak • Sofak • Sukaldeak • Tabernak • Tapizeriak • Tatuajeak eta • Torlojugintza • Zeramika

GIDA 2015

943 20 67 76 - 943 20 09 18

EIBAR_{ko} ETXE GUZTIETAN

eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentru... guztietan banatzen da



(B)

**Diru (B)eltza,
gizarte-zerbitzu
(B)eltzak**

**“A” gizartea
lortzeko**

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ÚNETE A LA ECONOMÍA
TRANSPARENTE**

www.ekonomiagardena.net



Gipuzkoa
BERRIA